

GOBERNU BATZARRA

2006. 04. 24

Alkatea:

Jokin Bildarratz Sorron

Zinegotziak:

**Olatz Peon Ormazabal
Jokin Azkue Arrastoa
Onintza Lasa Arteaga
Jose M. Vieites Gomez**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila eta seiko apirilaren 24an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeke eta erabakiak hartzeko:

1.-Aurreko akta onartzea.

2.- Santiago bidea.

3.- Kreditu aldaketa.

4.-EZ.3 “Gorosabel Kalearen Luzapena” Eremuko 2. JU-KO konpentsazio bazardearen estatutu eta jarduketa oinarrien proiektuaren hasierako onespina.

5.- Udate:

a).-Lehenengo hiru hilabeteari dagokion txostena.

b).-Kexa eta iradokizun zerbitzuaren lehenengo hiru hilabetekoari dagokion txostena.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2006ko apirilaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Santiago bidea.

Santiago bidea gaitzat hartuta, maiatzaren 2tik 7ra egingo den "Erromesaren astea"ren berri eman zaie batzordekideei. Bestalde, behin-behineko erromesaren aterpetxea jartzeko, Euskal Herria plazako 1B-2. solairua litzateke egokiena. Aurtengo apiriletik iraila bitartean erabiliko litzateke, inongo obrarik egin gabe. Gerora, beste lokalen bat bilatu eta egokitu beharko litzateke.

Hortaz, aurreko azalpenak kontuan izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. "Erromesaren asterako" aurreikusitako ekintzak onartzea. Dena den onarpen honek ez du suposatzen ekintza horien gastu onarpena; hauek kuantifikatu eta gero onartzeko aurkeztu beharko dira.

BIGARRENA. Erromesaren aterpetxea Euskal Herria plazako 1B, 2. solairuan jartzea 2006ko apiriletik irailarte.

Se informa a los asistentes sobre la "Semana del peregrino" que se celebrará del 2 al 7 de mayo. En este sentido, se considera que el lugar más adecuado para el acondicionamiento provisional del albergue de los peregrinos sería la 2ª planta del edificio 1B de la plaza Euskal Herria, que se usaría de abril a setiembre del año en curso. Para el futuro se debería encontrar y habilitar otro local.

Consecuentemente, teniendo en cuenta lo manifestado anteriormente, esta Junta de Gobierno, por unanimidad, y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO. Aprobar las actividades previstas para la "Semana del peregrino". Este acuerdo no supone la aprobación del gasto, ya que éste, una vez cuantificado, se deberá presentar para su aceptación.

SEGUNDO. Aceptar la instalación para el albergue del Peregrino en 2ª. planta del nº 1B de la Plaza de Euskal Herria, para el período de abril-septiembre de 2006.

3.- Kreditu aldaketa.

Galtzaundi Euskara Taldeari aurrekontuetan kontuan izandakoa baino 2.500 € gehiago eman nahi zaizkio poesia emanaldiaren gastuak ordaintzeko.

Beraz, Gobernu Batzarrak aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatu diru kopurua honako partidetatik ateratzea:

- 1.000 € Euskarako jardueretatik.
- 500 € Hezkuntzako diru laguntzetatik.
- Falta diren 1.000 €-ak Euskarako diru laguntzetatik; izan ere, Web guneen diru laguntzetan 3.000 € banatu beharrean 2.000 € banatuko dira, gehien jota.

BIGARREN.- Euskarako jardueretatik 1.000 € pasatzea Euskara diru laguntzen partidara eta Hezkuntzako diru laguntzetatik, 500 € Euskarako diru laguntzetara.

HIRUGARREN.- Galtzaundi Euskara Taldeari 33.500 €ko diru laguntza ematea eta hitzarmenean aipatzea.

LAUGARREN.- Aipatutako guztia kontuan izanda Galtzaundi Euskara taldeari lehen onartuta zituen 31.000 €-ei 2.500 € gehitzea.

BOSGARREN.- Erabaki honen berri Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

4.-EZ.3 “Gorosabel Kalearen Luzapena” Eremuko 2. JU-KO konpentsazio bazordearen estatutu eta jarduketa oinarrien proiektuaren hasierako onespena.

<p>Ikusirik, EZ.3 “Gorosabel kalearen luzapena” eremuko 2. JU-ko konpentsazio Batzordearen Estatutu eta Jarduketa Oinarrien Proiektua, Jarduketa Unitateko jabeen %67,30ak sustatzen duena.</p> <p>Ikusirik proiektuari buruz idatzi dene ta espedientearen ageri den txosten juridikoa, eta 1976ko Lurraren Legearen Testu Bateratuko 126. artikulua, Hirigintza Kudeaketako Araudiko 161. eta 162. Artikuluak eta ekainaren 30eko 17/94 Euskal Legearen 10.artikulua, bizilekuei dagokien premiazko neurriak eta planeamendu eta hirigintza kudeatzeko instrumentuen tramitazioa arautzen duena, hain</p>	<p>Visto el Proyecto de Estatutos y Bases de Actuación de la Junta de Compensación de la U.E. 2 del área RE.3 “Prolongación Rondilla” promovida por el 67,30 por 100 de los propietarios de la Unidad de Ejecución.</p> <p>Visto el informe jurídico emitido al respecto, que obra en el expediente, y de conformidad con lo dispuesto por los art. 126 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1976, art.161 del Reglamento de Gestión Urbanística, y art. 10 de la Ley del Parlamento Vasco 17/94 de 30 de junio, de medidas urgentes en materia de vivienda y de tramitación de instrumentos de planeamiento y gestión urbanística, así como con el dictamen emitido por la comision</p>
---	--

zuzen ere, Gobernu Batzar honek Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKIDU

1.- Hasierako onespina ematea EZ.3 "Gorosabel kalearen luzapena" eremuko 2. JU-ko konpentsazio Batzordearen Estatutu eta Jarduketa Oinarrien Proiektuari ondorengo baldintzekin:

1.1.- XX. OINARRIA "Obren onarpena": Azken paragrafoa kendu egin behar da; izan ere, urbanizazioko obren onarpena egin behar da ekintza administratibo positiboaren bidez eta Batzordeak aurrez eskatuta, eta ez, inola ere, isilduzko bidetik, testuak proposatu bezala.

1.2.- Estatutuetako 37. art.: "Errekurtsoak": Azken paragrafoa kendu egin behar da, aukera ematen baitu, Konpentsazio Batzordearen akordioen aurka jotzeko garaian, bi instantzia administratibotan errekurtsioak jartzeko, auzibidera jo aurretik.

2.-Proiektua jendaurrean ipintzea hamabost egunez, eta interesdunen entzunaldia ere egitea.

informativa de Urbanismo, esta Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

1.- Aprobar inicialmente el Proyecto de Estatutos y Bases de Actuación de la Junta de Compensación de la U.E. 2 del área RE.3 "Prolongación Rondilla", con el siguiente condicionado:

1.1.-BASE XX "Recepción de las obras": Debe eliminarse el último párrafo, toda vez que la recepción de las obras de urbanización deben realizarse en virtud de acto administrativo positivo y previa la solicitud formulada por la Junta a tal efecto, y en ningún caso por silencio como propone el texto presentado.

1.2.- Art. 37 de los Estatutos "Recursos": Debe eliminarse el último párrafo que hace referencia a la posibilidad de una doble instancia administrativa de recursos antes de iniciar la vía judicial contra los acuerdos de la Junta de Compensación.

2.- Proceder a la apertura de un período de información pública por término de quince días, en el que, además, se dará audiencia a los afectados.

5.- Udate:

a).- Lehenengo hiru hilabeteari dagokion txostena.

Gobernu batzar hau, jakinaren gainean geratzen da, Udal Idazkariak Udate zerbitzuari buruz prestatutako txostenarekin. Beraz, txostena honela dio:

“Kexa eta iradokizunen prozedura onartu eta martxan jarri da, espediente kudeaketarako aplikazioa erabiliz. Urtarrila eta martxoa artean jasotako espedienteen txostena osatuta dago.

Udate zerbitzuak erabiliko duen informazio datu-basea osatuta dago. Orain, informazioa (telefonoak, helbideak, etab) sartu behar da. Informaio hori Informazio eta Erregistrotik eta Udaltzaingotik jasoko da. Gainera, departamentu guztiek bidal dazakete intereseko informazioa datu basean jasota geratzeko, momentuz Udatearen esku.

Aurrerago, informazio hori Intranet bitartez udal-langile guztien esku jartzeko asmoa dago. Apirilean martxan egon daiteke datu basea.

Espediente kudeaketan sartutako espedienteek gain, tramitazio errazteko hainbat espedienteen prozedurak idatzita daude. Prozedura ximpleko espediente horiek Idazkaritza, Udaltzaingoa eta Kontuhartzaitzako espedienteak dira.

Udate Zerbitzuaren berri emanez publizitate kanpaina egingo du Udalak. Kanpainaren diseinua eginda dago.

Bestalde, Udate Zerbitzua osatuko duten enplegatuentzat herritarren arretarako prestatze ikastaroa bidean da. Ikastaro hori uda aurretik egingo da, eta beste departamentuetara ere zabal daiteke”.

b).-Kexa eta iradokizun zerbitzuaren lehenengo hiru hilabetekoari dagokion txostena.

Txostenaren laburpena honakoa da:

Urtarrila-martxoa epealdiko kexa eta iradokizunen txostena aurkeztu da. Emandako xehetasun eta datuen artean, azpimarratzekoa da erantzun epeak gehienetan urratzen direla. Kasu batzuetan, gainera, justifikaziorik gabeko atzerapena ematen da.

Txostenean jasotzen den moduan, oraingoz ez da kontutan hartzen emandako erantzunen nondik-norakoa; hori aurrerago kontrolatu beharko da.

Oraingoz ahalegina egingo da kexa eta iradokizunei erantzuteko mekanika martxan jartzen, eta hurrengo hiruhilabetean erantzun epeak ahalik eta gehien egokitzea hasierako helburuetara.

Aipatu epealdian 35 espediente jaso dira, horietatik horrela:

- Euskara eta Hezkuntzara..... 3
- Departamentu guztiei 1

- Idazkaritzara	2
- Kiroletara	5
- Obra eta Zerbitzuetara.....	10
- Udaltzaingoa	10
- Hirigintzara	2
- Kultura eta Gazteriara.....	1
- Festetara.....	1

Espedienteen egoera:

35 espediente horietatik, 29 erantzunda daude. 27 behin-betikoz erantzunda, eta beste 2 tramitazioa luutzen dela jakinarazita interesatuari.

Erantzundako 29 espedienteetatik, 14tan epe barruan jaso dute erantzuna. Beste 15, epez kanpo erantzun dira.

Irekita 8 espediente daude; guztiak ere epez kanpo. Horietatik 2k tramitazioa luzatua dute (20 eguneko epean).

Irekitako espedienteen artean, 3 urtarrilekoak dira eta gainerako 5ak martxokoak.

Azkenik, Idazkariak aipatu du UDATEren publizitate kanpaina martxan jarri nahi dela, aurrekontua 2.876,27€koa izanik.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.

ALKATEA

IDAZKARIA